



HILA ESPOS

Piarres Larzabal

Iturria: *Piarres Larzabalen idazlanak (II)*, Piarres Larzabal
(Piarres Xarrittonen edizioa). Elkar, 1991

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LarzabalHilaEspos.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabetza Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

HILA ESPOS

Aintzin solasa

Gure herritan, asko borroka gertatzen dira herri-gizon eta eliz-gizonen artean, su-gai dituztela batzu eta besten lege desberdinak. Manatzeko urratsetan, ez da beti errex neurtzea noraino doatzin alkatearen eta noraino erretorearen eremuak.

Erretorak huts egin dezake apezkeriz, eta alkateak ere... gobernukeriz.

Makurbiderik bien artean ez dadien sortu, batek ala besteak behar dute jakin, zuzenbidea maitasunaz leuntzen.

Bestalde, asko kristauek, bide makurrean dabilanari, nahi lioteke lortu bidegabeko barkamena.

Badakigu makila ez daitekela bi burutarik atxiki, eta, izerdiaren saria irabazten duela bakarrik, uko-egile ez denak.

Betidanik, gerlek baitute fedearen adimena kamusten, eta fededunen ibilietan nahaspila sortzen, antzerki huntaz nahi izan ditut fedezko erakaspenak zuzendu eta fermutu.

Doala antzerki hau, egiaren predikari!

P. LARZABAL

Jokalariak:

ERRETORA: 40 bat urte, apez edozoin.

GELARIA: 60 bat urte, emazte xahar bat.

GREFIERA: 40 bat urte, jaunxkil.

FRANTZINA: 45 bat urte, arpegiz zintzo.

ADELA: 45 bat urte, arpegiz harro-aire.



MAYI: 22 bat urte, pollit, alegera.

ERRIENTA: 45 bat urte, arpegi ilun eta eri.

MERA: 50 bat urte, edozoin.

LEHEN GERTALDIA

Joka-lekua:

Erretor-baitako barne bat.

(Barnea butsa agertzen da. Andere gelaria sartzen da, erretoraren xapela tipia josten duela... xapela entseatzen du berak, eta pausatzen dio bulego-gainean... Apeza sartzen da... xapela emaiten du buruan. Gelariak liburu bat hartzen du eta lotzen da irakurtzen ixilik... Apeza eskeribatzen ari dela, predikuan bezala mintzo)

ERRETORA: «Girixtino maiteak! Egun dugu gerlaren bururatzeko urtemuga».

GELARIA: Xu xirea bihar predikari?

ERRETORA: Ba, ttantta maitea; zure ilobak bihar gaitzeko predikua egiten diote herri huntako gerlari ohieri: «Girixtino maiteak!... Girixtino maiteak!...» Ha, arrunt agorte da ene izpirituian... Zuk, zer irakurtzen duzu hor, ttantta?

GELARIA: Testament zaharrea ari nuxu. Salomonen ixtorioan!

ERRETORA: Irakur-azu gora... Beharbada gogoeta aberats zenbait ematen dauzkidazu ene predikuarentzat.

GELARIA: Ba, preseski gaitzeko aberastasunetan nuxu. Entzun-axu hau: *(Irakurtzen du)* «Salomon erregea, Jainkotiar eta zuhurtzia handikoa zen. Haren denboran, urrea burrustan sartu zen Izraelgo erresuman. Bere baxereria dena urrezko zuen. Zilarrak berak ez zuen begitarerik. Bere meneko bazituen itsas-untzi multzo bat, milaka zaldi eta mando, kamelu-artalde bat gaitza»... Zer zitxin horiek, kameluak?

ERRETORA: Abere batzu... Baitituzte halako konkorrak batzu bizkarrean!

GELARIA: Ha, ba!... Ikusiak tixit potretetan. *(Segitzen du)* Bazixin beraz, Salomon Jainkotiarrak, kamelu-artalde bat gaitza. «Bere gomendio hartu zituen mila emazte, zazpi ehun, printzen alabetarik eta hiru ehun edozoinetarik»... Jesus!... Entzun duxia?... Baditakeia holakorik? Zer ari xira? Izkiriatzen, eni kasurik ere eman gabe? Hori duxia liburu sailduen estimua?



ERRETORA: Segi-azu, segi... Ba ahal dakit, Testament zaharrean, Salomonen ixtorioal

GELARIA: Bainan, entzun duxia zer irakurri dudan? Salomon errege Jainkotiarrek bazituela mila emazte... Baditakeia holakorik?

ERRETORA: Zer nahi duzu nik egin dezadan?

GELARIA: Bainan, orduan, nolaz zitaken Jainkoaren adixkide, hoinbeste emaztekilan?

ERRETORA: Denbora hetan ez zen bekatu, gizon batentzat, emazte bat baino gehiago ukaitea.

GELARIA: Jes? Zer da beraz? Gure Jainkoa kanbiatu?

ERRETORA: Ez arai. Adan eta Eba, Jainkoak bat egin zituen. Eta, lege hori bera da, orai ere: Ezkontza, «pariak bat».

GELARIA: Eta, nolaz ez zen lege bera Salomonentzat ere?

ERRETORA: Denbora hetan, jendeak basatuak ziren. Eta, heien basakeriaz urrikaldurik, hastapeneko lege garbia, Jainkoak pixka bat arindu zioten. Bainan geroztik, Jesusek, legea berritzez arri zuen bere lehen mailean.

GELARIA: Uste baduxu, orai, orduan baino basakeria gutiago dela bazterretan! Gure Jainkoak uzten ahal zixun lege hori, Salomonen denborako mailean. Legea, Jainkoak berritzez lehen bezala ezarria izanagatik, ez baitzaizko gizonak, biziki jarraitzen.

ERRETORA: Utz-azu Jainkoa bere gisa. Badaki zer ari den. Goragoko maila Jainkoak eman diote gizoneri, gorago altxa daiten. Hanbat gaixto berentzat, azpiko mailetik nahiago badute ibili... Ha, ene predikua ez dut biziki aintzinatzen! (*Alegia predikatzen*) «Girixtino maiteak: Gerla zertarik heldu da? Zertarik?... Hamarretarik zortzitan, emazteengatik».

GELARIA: Xaude ixilik, zure xorokeriekin... Badixute gizonak gure beharra bizitzeko.

ERRETORA: (*Beti predikuan*) «Ene ttanttak dion bezala: Etxe batean emazte bat, han deubru bat... Etxe batean emazterik ez, han bi deubru».

GELARIA: Xoroa! Bon, emaiten dixit Salomonen segida.

ERRETORA: Emazu ba Salomonetik, ene ttantta ona.

GELARIA: Nun nintzen ba?

ERRETORA: Mila emazte zituela, han.

GELARIA: Ha, ba. (*Irakurtuz*) «Bere gomendio hartu zituen mila emazte, zazpi ehun printzen alabetarik eta hiru ehun edozoineta-

rik». (*Geldituz*) Bainan, nahi dautaxia erran, zertako zitxin hoinbeste emazte, errege kaiku horrek?

ERRETORA: Hoinbertze mando eta kamelu zituenaz geroz, dudarik gabe, heien zaintzeko ere, multxo bat behar zuen ba.

GELARIA: Hainbeste emaztekilan, ez ahal da aise zeruan sartu, sartu bada ere.

ERRETORA: Nik uste, bertze hainitz baino aiseago. Emazte baten jasaitea, merezimendu handia da jadanik. Pentsa ba, mila emazteen jasaitea.

GELARIA: Bon, tira ttanttoa.

ERRETORA: Ori... Ideia bat emaiten dautazu... Bihar predikutik behar daizkotet aipatu Salomonen emazte horiek.

GELARIA: Ez ahal duxu holakorik eginen. Irri eginen deixie. Pentsa-axu ba, mila emazte. Oraino, bizpahiru zituela aipatzen baxinu... bainan, mila!

ERRETORA: Zer erran nahi du, zituen guziak aipaturik ere? Egiak bere bidea behar du.

GELARIA: Ba, ba. Gal-axu predikuaren errespetua. Ikusiko duxu gero. (*Zirrintza atean*) Grefiera da hor.

ERRETORA: (*Omorea txartzen zaiu*) Grefiera, apostolu hori! Zertarat heldu da? Zerbait nardagailurekin oraino ere, bixtan da. Politike-ro nahasiak!

GELARIA: Ezti zite. Ez xitela aintzinetik samur, deus jakin gabe ere.

ERRETORA: Sar araz zazu, sar araz, otoi.

GREFIERA: (*Sartuz*) Agur, Jaun Erretora!

ERRETORA: Agur, Jan Piarre. Hemengo aldi duzu beraz.

GREFIERA: Ba, Jaun Merak igortzen nau.

ERRETORA: Jar zaite, jar... Zertaz igortzen zaitu Jaun Merak?... Onez edo txarrez?

GREFIERA: Badakizu, Jaun Erretora, gobernuak, gerlan hil haurrak oho-ratzen dituela.

ERRETORA: Ontsa egiten du. Merezi ahal dute.

GREFIERA: Pentsatzen dut, herriko artzain gisa, zuk ere ohore emaiten hortan, parte hartu nahiko duzula.

ERRETORA: Bixtan da.

GREFIERA: Legea pasatua da, gerla tokietarik, hilen gorputzak, bere fami-lieri itzultzeko. Eta, herrian zenbait egun barne, lehen gorputzen ehorztea izanen dugu... Oraiko ustez, lehen hunar-rat ekarriko duten gorputza ez da nor-nahirena izanen.



Herriak, ohore handienak emango diozka. Pentsatzen dut, merian bezala elizan ere, handizki ohoratu nahiko duzula.

ERRETORA: Zerendako ez? Ez ahal dut nehoi, merezitu ohorerik errefusatu?

GREFIERA: Ba, naski lehen jinen den gorputza, bertute gaitzeko gizon batena izanen da, ofizier izana, medailatua.

ERRETORA: (*Durduzatua*) Zer da bederen, hemengo erriente zenaren gorputza lehenik heldu?

GREFIERA: Hura bera.

ERRETORA: Ai, sus, nunbaitik ere!

GREFIERA: Zer, Jauna... Ez ahal zira, bizi denborako harat-hunatez, hil bati, oldartuko!

ERRETORA: Ez dut oldartzeko arrazoinik. Nik ez dut erriente hori eza-gutu ere, ez bainintzen oraino hemen... Bainan bada hor bertzerik.

GREFIERA: Ez ahal duzu, oixtiko hitz ederren ondotik, orai gibelerat eginen?

ERRETORA: Delako erriente, elizaz ezkondurik, dibortzatua zen.

GREFIERA: Ba, hala zen; haren lehen emaztea, Frantzina eri-artatzalea da. Bigarren emaztea, meriaz hartu zuena, enekin ezkondua da berriz.

ERRETORA: Ba, badakizkat horiek. Urrikitan sartu gabe hila dela ere... Beraz, ez zuenaz geroz nahi elizaren ohorerik ezkontzeko, nik ez dezoket eman elizaren ohorerik ehortzetako.

GREFIERA: (*Minberaki*) Zer? Elizako sarrera errefusa zinioko? Ez ahal diozute ene emazteari eta familiari afruntu hori eginen?

ERRETORA: Ez dut familia enterratzen, bainan erriente.

GREFIERA: Ez nuen uste hola armada ohoratu zuen soldado batek, bere herrian afruntu hori izanen zuela, herriko elizako artzainaren ganik.

ERRETORA: (*Bizi-bizia*) Afruntua nork dio egin nahi? Nik edo zuek? Nik errespetatzen dut errientearen nahia. Zuek duzue hura mespresatzen, bizirik ukatzen zuen elizarat, hil-eta bortxaz sararazi nahi baituzue. Eliza, bizi guzientzat da hil artino; bainan hil-eta, hartaz bizi nahi izan dutenentzat bakarrik, ez bertzeentzat.

GREFIERA: Uste nuen, hilez-geroz, biziko ixtorioak ahantzi behar zirela; hil batek errespetua zuela bakarrik hartze.

ERRETORA: Ba, hil batek errespetua du hartze... Bizi zeno, erriente errespetatu izan duzue. Orduan, ez duzue behin ere bortxatu elizarat. Errespetu bera ekar-ozue hil-eta ere. Egiazko errespetuak, bisai bera du, haren hartzalea bizi edo hila izan dadien.

GREFIERA: Bon, ontsa da. Badakizu ahaidetasun handia duela, eta egitate horrek zuretzat ondorio gaxtoak izan detzakela... Nik familiari, gauzak, zuk aipatu bezala, ditut errepikatuko.

ERRETORA: Zuzen den legea, nun-nahi errepikatzeke on da.

GREFIERA: Agur, Jaun Erretora.

ERRETORA: Ba, agur. (*Bakarrik*) Bitxi da, ba, zombat jendeak erlijionetik nahi duten hil, eta... Erlijionea ez da hilentzat, bainan bizientzat. Eliza ez da hilen, bainan bizien batasun bat. Batasun haren ohoreak nahi badituzte hil-eta, hura ohora dezatela, bizi direlarik. Bizi zirelarik, erlijionearen zamari-uli ziren. Hil-eta, zamariari, ohora ditzan galdatzen diote uliek... Zer kopeta! Apeza ez daukate Jainkoaren gizon, bainan beren trapu tzar. Beren zerbitzuko izan dadien, ez zaiote aski; berek manatu nahi diote nola zerbitza. Ez du erlijioneak guri plegatu behar, bainan guk hari.

GELARIA: (*Agertuz*) Bakarrik xireta?

ERRETORA: Ba, bakarrik.

GELARIA: Xuk pasatu duxu oraino ere zerbait Jaun Grefierarekin... Zer ari izan zizte?... Berriz ere «gattu eta xakur»?

ERRETORA: Ez da hori xakur, bainan zakur; eta, horri ihardokitzeko, ez da behar izan gattu, bainan gatu zahar.

GELARIA: Oas, politikak hola nahasten tixi bazterrak.

ERRETORA: Ba, eta berak nahi edo ez, apeza saltsa guzietako zali. (*Zirrintzak joiten du*) Ha, nor da hor berriz ere? Utz-azu. Nihaurek idekiko dut. Aintzina, andere Frantzina. Hemengo aldi? Jar zaite.

FRANTZINA: Milesker. Ez dut solas handirik egiteko. Sasoin huntan, urte guziz bezala, ene senar zenarentzat meza baten galdatzerat jina nintzen.

ERRETORA: Berrikitan konprenitua dut oraino nor zen zure senarra... Gerla-ofizier hila den, erriente omen.

FRANTZINA: Ba, hala zen. Badakizu ere, dudarik gabe, segida. Ezkondu-eta, bortz urteren buruan, berexi ginen elgarretarik... Enekin bizi den Mayi, gure haurra da.



ERRETORA: Zertaz samurtu zinezten?

FRANTZINA: Ho, deusetaz, ez gira behin ere funtski samurtu. Ene senarra gizon on bat zen, bainan ahula. Ez zuen federik... Eni plazer egiteko elizaz ezkondu zen. Bainan bazen norbait, ezkontza hortaz jelos zena. Norbait harek, bere saretarat berritz bildu zuen. Gure arteko amodioa hoztu zen. Egun batez senarra ez zen gehiago etxean sartu. Delako harekin bizitzeko apailatu zen. Delako hura badakizu ba nor den: Adela, jaun grefieraren emaztea.

ERRETORA: Ba, badakit nor den... Eta, haurra, hoin gisakoa heldu baita, nork hazi zinuten?

FRANTZINA: Adelek pusaturik, senarrak, dibortza galdegin zautan, eta aintzineko azkarrak baitzituen, nik nahi edo ez, dibortza erreusitu zuen... Gero, berritz, meriaz ezkondu zen Adela-rekin.

ERRETORA: Eta Mayi, zer bilakatu zen?

FRANTZINA: Altxatua izan da batean senarrarekin, bertzean enekin, bainan senarra gerlarat joanez geroz, alderat enekin bizi da.

ERRETORA: Gaixo, aita-ama berexien haurrak! Horien bizia ere ahal dena da.

FRANTZINA: Badakizu, dudarik gabe, Mayi ezkontzen zautala?

ERRETORA: Norekin?

FRANTZINA: Jaun grefieraren lehen ezkontzako semearekin... Adela, bigarren ezkontzako du grefierak. Lehen ezkontzatik badu mutiko bat, Andre, orai postetako enplegatu dena... Harekin ori...

ERRETORA: Zer mutiko da, Andre hori?

FRANTZINA: Ho, arras mutiko plantakoa... Aita beti pixka bat apez-jale ta gorri izan da... Bainan semea, arrunt guretarik da.

ERRETORA: Hobe, hobe. Eta orai, nola zira zu Adela-rekin? Nahi't'ez, Mayi Andrekin ezkonduz, zuk Adela-rekin gurutzatu behar duzu.

FRANTZINA: (*Suspiriarekin*) Ha, Adela, Adela!... Zer ez daut sofri-arazi emazte horrek!... Barkatzen diot, ba... Jesusek ere burregolari barkatu baitzioten, bainan ez eni galda harekin gurutzatzea... Dagola bere etxean; ni egongo naiz enean.

ERRETORA: Gaixo! Izan duzu zuk ere gurutze jasaitako.

FRANTZINA: Ha, ba, Jauna... Badakit penaren berri, nor-nahik bezenbat. Beharrik lotu nintzen lanari... Pikura egiteko eta erien arta-

tzeko ofizioa orduan hasi nuen... Lanak, gogo beltzak arindu zauztan, lanak eta ere nuen fedeak. Ha! Ez banu izan orduan federik, ez dakit, ez dakit zer gertatuko zen.

ERRETORA: Ez erreusituaren pena izan duzu, bainan kontzientzia bakean duzu. Adela izan du erreusituaren plazerra, bainan barneak oraino ere zimiko egiten bide dio. Zeren, pena zuzenak barneko plazerra badu ondorio, plazerra makurrak, berritz, barneko pena du ondorio.

FRANTZINA: Baditake, Jauna. Hastapen hartan, gure Jainkoaren kontra jazarkunde batzu banituen: zertako xuxen dabilana den hola punitua, eta makur dabilana berritz fagoratu.

ERRETORA: Gure Jainkoak batzuetan arima hautuzkoeri igortzen ditu pena lazgarrienak, heiangarik munduak ikas dezan pena hetan nola goberna. Beharbada, zure kasuan, bertze zombaitek uko egin lezakete gobernatze xuxenari, arrazointzat emanek, ezin dezaketela bertze biderik har. Bainan, zure etsenpluaz ihardetsi diozute, nola eta zer egin. Zure etsenplua, zure kasuan gertatuko direnentzat, hor izanen da beti prediku.

FRANTZINA: Milesker, Jauna, zure ele onentzat... Bon, horra mezaren saria. Joan behar dut.

ERRETORA: Ontsa da, andere Frantzina, milesker... Best'aldi bat artio. (*Segitzen du*) (*Bakarrik*) Ezkontza, Jainkoak eginikako legea. Bertze edozoin Jainko-lege bezala, hori ere ez bada errespetatzen, mundu hau nahasten da. Uruski, lege horrek balin baditu bere zikintzaleak, baditu ere sustengatzaileak. Garbitasuna beiratzeko bezala, badira ere ezkontza beiratzeko, martirioa jasaiten dutenak. Jende eginbidetsuek, beren sakrifizioez dute beiratzten goragoko legeen errespetua, eta hola mundu hau salbatzen eta hobetzen. (*Zirrintza*)

GELARIA: Erraxu, Adela da hor.

ERRETORA: Bo, maitia... Ez ginuen beharragorik. Sar-araz zazu, otoi.

ADELA: Agur, Jaun Erretora.

ERRETORA: Agur, andere Adela.

ADELA: Batere ez naiz, Jaun Erretora, zutaz kontent, eta xehetasun zenbaiten zureganik jakiterat heldu naiz.

ERRETORA: Jar zaite... Eztikiago mintzatuko gira, jar-eta.

ADELA: Ba, ene gizonak erran daut, gerla tokietarik heldu den ene senar zenaren gorputza ez duzula elizan sartzerat utziko.



ERRETORA: Zuk, izan duzuia senarrik, jaun grefieraz bertzerik?

ADELA: Ba ahal dakizu, errienta zena, gerlan ofizier hil dena, ene senarra zela.

ERRETORA: Barkatuko duzu, andere Adela... Elizako liburuetan ez dut harrapatu zuen ezkontzako ageririk. Delako errienta ezkondu zen elizan, bainan harek hartu emaztea, ez da zure izeneko.

ADELA: Badakizu arras ontsa, dibortzatua zela, eta berritz enekin meriaz ezkondua.

ERRETORA: Nik elizako ohoreak, elizaz ezkondueri diozkatet bakarrik emaiten. Meriaz ezkondueri, meriak eman dietzotela.

ADELA: (*Nigarrez*) Gaixo ene senarra!... Ez zuen hori merezi. Hain ona baitzen. Elizako otoitzak berak errefus.

ERRETORA: Otoitzak nehork ez diozka errefusatzten. Nik harentzat, beharbada zuek denek baino gehiago dut egiten, eta egina-razten ere. Mezak ere harentzat eman-arazten ahal dituzue. Preseski andere Frantzinak, oixtian bat emaiteko galdetu daut.

ADELA: (*Kexu*) Frantzinak! Zer behar du harenganik? Ez zen hura gehi-ago haren senarra, bainan enea...

ERRETORA: Ez, andere Adela. Zuk nahi edo ez, betikotz, errienta zena, andere Frantzinaren senar izanen da... Ez beharbada meriako paperetan; bainan, Jainkoak ez du kasurik emaiten meriako papereri, bainan elizakoeri.

ADELA: (*Erdi nigarrez*) Horra zer saria merezi zuen, gerlan bere burua sakrifikatu duen gizonak!

ERRETORA: Gerlariak, andere Adela, berek maitatu eta zaindu bandera-ekin dira enterratzen. Elizak ere berdin egiten du. Biziko bandera dio hilari lagun emaiten, ez bertzerik.

ADELA: (*Asaldatua*) Orduan, zer da?... Ifernuan, ene gizona, ez zelakotz eliztiarra?

ERRETORA: Hori, ez dezakegu jakin, ez zuk eta ez nik, ez eta nehork mundu huntan. Guri da bakarrik hilen laguntzea.

ADELA: Ez dut bertzerik egiten. Hura lagundu-beharrez jina naiz-eta hunarat.

ERRETORA: Orai, hil ondoan, zira haren zorteaz griñatzen. Bizi zelarik griñatu zirea? Orduan zen tenore, orai baino hobeki.

ADELA: Frantzinaren falta da dena. Bere gizona hobeki konprenitu balu, ez zitzaion bertzetarat alatuko.

ERRETORA: Ez zen alatuko, ez bazinio alapiderik eskaini. Ez eta ere gizon hura konprenitzeko orde, haren emaztea konprenitu bazinu.

ADELA: Peningarri zen ikustea, holako senar ona izaki eta, zer kaprizak egiten ziozkan jeloskeriaz.

ERRETORA: Jeloskor baino hobeki, Frantzina, ez ote zen gertatzen zena-ren ikuskor? Geroak ez ote dio arrazoin eman?

ADELA: Zer behar zuen gizonak?... Bere emaztearengatik bizi pozoindatu bat ereman?

ERRETORA: Ho, andere Adela! Ortziraleak badira senar-emazte guzien artean. Ortzirale hek behar dituzte jasan, eginbideari behatuz, eta ez plazerrari. Heien arteko korda higatzen ari bada, horren azkartzerat berma ditela, ba berak, ba heien sahetsekoak. Korda haren azkartzerat, ez haren ondarra hausterat.

ADELA: Ez dut nik kordarik hautsi... Hautsia zen jada, muturretik lotu nitzaioalarik.

ERRETORA: Ez dakit hori arras hola den... Bainan, ezkonduen arteko korda, lurrean hautsia bada ere, hura nehork ez dezala bil, muturren berritz elgarri estekatzeko baizik.

ADELA: Dena den, ene senar zenarentzat meza bat manatzerat heldu nintzen eta, ez ahal dut entzunen, prediku-alkitik, beste aldiz bezala: «Errienta zenarentzat, meza bat, bere emazte Frantzinaren partez, eta bertze bat bere adixkide Adelaren partez».

ERRETORA: Ez duzu holakorik ene ahotik entzun, eta holakorik jali baneza ere, ez laiteke egia baizik.

ADELA: Ba, zure aintzineko erretorak, hori egiten baitzautan. Eta gainerat, pazkoak errefusatzten zauzkidan, hura gerlan zen denboran ere.

ERRETORA: Ez ahal zinuen pazkoen egiteko pretentzionerik hartarik berexi gabe... Orai ere, iragan bizi-az duzun urrikiarekin, nago nola absoluzioneari apailatzen zaren.

ADELA: Ba, ni Jainkoarekin antolatzen naiz...

ERRETORA: Agian ba, andere Adela... Haatik, ez dut ene apez-ixtudioan, behin ere ikasi, Jainkoarekin antolatu ditakela, egin bekatu eta eskandalarentzat urrikirik gabe.

ADELA: (*Nigarrez*) Gaixo senarra!... (*Jalitzzen da*)

ERRETORA: Bortizki mintzatu banaiz, ez dut uste makur mintzatu naizela. (*Bakarrik kexu*) Emazte komediantea!... Denek hutsak



egiten ditugu. Bainan badakigu urrikitan sartzen... Hutsa huts da alabainan... Horrek bere hutsa, xuxentzat nahi du pasatu. Bere bekatuan ez du hobendun delako aitotrik; bainan bide zuzenean dela dio. Hori, gaizkia ongi dela erraitea da... Izpiritu makurra... Urguludun izpiritua... Nola nahi duzu holakoak barkamendurik ukan dezan?

GELARIA: Hauxe ba zoin kexu xiren!

ERRETORA: Ttanta: badakizua zer gogoratzen zautan bet-betan... Salomon saindu handienetarik bat zitakela. Mila emazte jasan dituenaz-geroz, mila aldiz zerua irabazi duela. Eta, gehiago aldiz ere irabazi du zerua, nik dazkitan beste zenbaiten idurikoak balin bazituen segurik bere emaztetan.

GELARIA: Xuk segurik, purgatorio poxi bat merezi xinuke, hola emazteen kontra mintzo baitxira. (*Zirrintza*) Sar xite, sar, Mayi.

ERRETORA: Te... Agur, Mayi... Tenore onean heldu zira... Ttantik orai-xet berean purgatoriotan ezarria ninduen, erasian ari nintzelakotz emazteen kontra.

GELARIA: Merezi xinin bezala. (*Jalitzzen da*)

MAYI: (*Irriz*) Ttanta Adela ikusi dut hemendik nigarrez jalitzen. Irri egin dut ene baitan. Gaitzeko andan, etxetik, zureganat, jalia zen behar zauzkitzula bi egia salatu.

ERRETORA: Salatu dauzkit, bainan entzun ere baititu.

MAYI: Ba, afruntu zaio bere senarra, ene aita zena, ez duzula elizan onartzen, hil-herrietan sartu aintzin.

ERRETORA: Zuk bederen ahal dakizu nola diren Elizako erregelamenduak.

MAYI: Ba, ba. Nik eta amak ere. Ez duzu hortaz, gureganik, desgustarik ukanen.

ERRETORA: Hola, hola; girixtino hoberenek sustengatzen banaute, bertzetaz ez naiz kexu... Errazu, Mayi, zure amak berri handi bat aipatu da. Zeraz... beraz, laster Adela bietan ttanta izanen duzu... Aita zenaren laguna zelakotz eta aita behararren laguna delakotz.

MAYI: Ba, Jaun Erretora. Hortaz heldu nintzen. Egun pixka bat durduzatu nau norbaitek, ezkontza hori ezin daitekela, ahaidetasunezko traba bat badelakotz, Andre eta ni artean.

ERRETORA: Zer traba?

MAYI: Andre, grefieraren semea da, lehen ezkontzakoa. Ez zaut iduritzen deus ahaidetasunik badela gure artean.

ERRETORA: Ez da hor deus trabarik. Traba izaiten da lehen kusin eta lehen kusinen haurren artean: Ez zirezte deus holakorik elgarrentzat. Traba izaiten da oraino koinatekin eta koinaten lehen kusinekin... Hortan ere, ez zirezte barne... ez, ez... Agozte deskantsuan. Ez du deusek trabatzen zuen ezkontza.

MAYI: Ha, milesker, Jaun Erretora!... Lorietan nago horiek entzunik.

ERRETORA: Errazu, Mayi: Zu betitik kantorean izan baitzira eta elizari zerbitzu egiteko prest, pentsatzen dut hameka orenetako ezkontza eder bat nahiko duzula.

MAYI: Hala ginuke xedea, zuri ontsa bazautzu segurik.

ERRETORA: Bixtan da ontsa zautala... Norbaitek elizako ohoreak merezi baditu, segur zu lehen mailean ezartzen zitut.

MAYI: Milesker, Jaun Erretora.

ERRETORA: Zer mutiko da zure lagun beharra?... Ez dut ikustez besterik ezagutzen.

MAYI: Ez da batere aitaren ideietako. Postetan, enplegatua den tokian, aurkitu ditu lagun onak... Heiekin abiatu zen omonier batek heientzat egiten dituen bilkuretara. Eta, emeki-emeki, ni baino ere erlijione azkarrago baten jabe egina da.

ERRETORA: Hobe, hobe... Eta, lanez, osagarritz, ibilpidez nola da?

MAYI: Ho, osagarri ona du. Eta dautzut seriosa dela... Ez dut merezimendu haundirik izanen harekin, mantalin xuriaren ohorea zaintzeko.

ERRETORA: Hobe, Mayi... Kontent naiz xehetasun on horien entzuteaz. (*Zirrintza*) Te, nor ote da, berriz ere hor?

GELARIA: Gizon larriki bezi bat duxu hemen. Iduri dixi eskale bat.

ERRETORA: Emo zu zer bait eta igor-azu. (*Apur bat ixilik*)

GELARIA: Xu behar omen xitu baitezpada mintzatu.

ERRETORA: Bon, beraz... Mayi, zaude hemen. Zu hemen eta lasterrago despetzen ahalko dut. Hola dire eskale guziak. Nagusia nahiago dute, sehia baino. Hareganik gehiago ukaiteko mentura baitute. Sararaz zazu hunarat.

ERRIENTA: (*Agertuz. Mintzo da barne-barnetik, misteriozki*) Ha... Ez zira hura... Barka, Jauna, barka... Zu hemengo Jaun Erretora?

ERRETORA: Ba, hala naiz.

ERRIENTA: Ba, ba, bertze hura zer bilakatu zen?

ERRETORA: Hemengo xaharra hil zen. Haren ordaina, ni.

ERRIENTA: Ba, ba... (*Nigar bat xukatzen du*) Gazte hau nor da?

ERRETORA: Hau? Hemengo gazte bat... Mayi du izena.



ERRIENTA: Mayi... Mayi... Barkamendurekin, sobera litakea hunen deitura galdatzea?

MAYI: Mayi Larralde deitzen naiz.

ERRIENTA: (*Izjigarri hunkitua*) Mayi, Mayi Larralde!... (*Nigarrez, erortzerat doa*)

ERRETORA: (*Kadira hurbilduz*) Zer duzu, gizona? Zer egin zautzu?...

ERRIENTA: Pitsik... pitsik... Mayi!... Mayi!...

ERRETORA: (*Gelaria deituz*) Ttanta, zato hunadino. (*Agertzen da*) Gizon huni barnea hautsi zaio... Zerbait edari ekazu.

GELARIA: Ahuldua duxu hau... Ez da besterik. Zato, jauna, enekin sukalderat. Badixit han zerbait on jateko.

ERRIENTA: Milesker. (*Ez-tul-parrasta bat*) Ha! Mayi!...

ERRETORA: Bon... Jan-azu... Deskantsa zaite... Ixtant baten buruan, andere gazte hau despeitu eta elgarrekin mintzatuko gira.

ERRIENTA: Milesker. (*Jalitzzen da gelariarekin*)

MAYI: (*Hunkitua*) Ha!... Zer ote zuen gizon horrek hola inarrosia izaiteko, ni ikusi-eta?

ERRETORA: Nik dakita? Hoinbertze, adimenduz ahul den jende ikusten da oraiko mendean... Nork daki zer gogoratu zaion zu ikusi-eta? Beharbada zu iduriko alaba zombait badu, eta hura berdin.

MAYI: Ho!... Barne guzia nahasi daut... Ez dakit ohartu zaren... Begiz jan nahi ninduen... Iduri zuen egiazki ezagutzen ninduela.

ERRETORA: Ba, has zaite, zu ere, orai, amets zorotan... Ale! Pixka bat alegera-azu zure gogo hori; oroit zaite Andrez, espos-egun ederraz, eta zure bihotza pil-pil izan dadiela, plazerrez eta ez ikarez...

MAYI: Ho! Berdin du... Barnea urratu daut gizon horrek. Nahiago dut hemendik lehenbailehen urrundu.

ERRETORA: Zoazi, zoazi otoi, kanpo hortarat, aire on pixka baten hartzerat.

MAYI: Ba, hobe dut jalitzea... Barkatu Jaun Erretora. Bihar artio, beraz.

ERRETORA: Ba, bihar artio... (*Irriz*) Eta beira zaite mutxurdin ametsetarik... (*Bakarrik, erdi irriz*) Hauxe da botiga barne huntan!... Lehenago ez bainezaken Salomonen kreaturekin burutze-rik egin, ez ahal dira orai zozoteietako kreaturak hunarat abiatuko... Alo!... Zer ote da berritz hori?

GELARIA: Erraxu, libro xireak? Ez dixi pitsik hartu nahi... Xu mintzatzea dixi bakarrik galdatzen.

ERRETORA: Bon... Sar-araz zazu. (*Apur bat bera*)

ERRIENTA: (*Sartuaz...* *Eskuin eta ezker so egin ondoan*) Jauna, hemen sekretuan mintzo ditakea?

ERRETORA: Ni nuzu bakarrik hemen entzule. Zuharek ikus, ni baitan konfientziarik baduzun.

ERRIENTA: Ez naiz nihaur erlijionekeo, bainan apeza beti errespetatu izan dut. Badakit sekretuzko gizonak zaretela. Eta hortako jo dut zure atea. (*Ez-tul-parrasta bat*) Beha nezazu ontsa. Ezagutzen nauzuia?

ERRETORA: Ez.

ERRIENTA: Ez duzu arrazoinik ni ezagutzeko. Alabainan berri zira hemen... Entzun duzuia bazela herri huntan errienta bat, gerlan zela soldado aintzindari?

ERRETORA: Ba... gerlan hil izan da... Haren gorputza beha gagozi herrian.

ERRIENTA: Ha, ba? Haren gorputzaren beha? So egizu eni. Errienta haren gorputza, huna nun den. Ez da errienta hila, bainan hemen duzu zure aintzinean.

ERRETORA: Hee?

ERRIENTA: Ba, ni naiz delako errienta. Ez lehengo itxurarekin; hama-bortz bat kilo galdu baititut. Bainan halere, ni, errienta.

ERRETORA: Zu errienta!... Ho, ho!... Beraz zure alaba, Mayi! Konprenitzen dut orai zure oixtiko asaldura... Ho, ho!

ERRIENTA: Ba, nik Mayi ezagutu dut, hameka urte hautan ez ikusia izanagatik ere.

ERRETORA: Bainan, nundik agertzen zira?... Bonbardamendu batean hila zinela errana zautaten. Zure sakelako puskak ere etxerat ukan zituztela.

ERRIENTA: Kondatuko dautzut laburzki... Delako bonbardamenduan hiltzat utzi ninduten, eta, sakelak hustu-ondoan, hilekin ezarri ninduten. Bainan, noizpait atzarri nintzen, burutik nahasia, eta alemanen ospitale batetarat altxatua. Aleman ospitaleaz, rusoak jabetu ziren, eta, gu han ginena, denak Rusiarat igorri gintuzten. Gerla bururatu-eta, nehork ez baitzuen aipu gure librantzarik, eskapatzerat entseatu nintzen... Bainan, rusoek atzeman ninduten eta punimenduz igorri Ziberiarat... Han egon naiz orai artio... Azkenean, etsitu ondoan, libratu naute ba noizbait...



Hemengo gararat oixtian heldua naiz... Ez nau nehork ezagutu... Ez dut nehorekin elerik egin... Ez bainakien norat jo, hunarat jin naiz xuxen-xuxena, xehetasunketarat... Otoi, erradazu, zer bilakatu da ene familia.

ERRETORA: Zure alaba Mayi ikusi duzu... Esposatzerat abian da grefieraren semearekin...

ERRIENTA: Jan Piarre dea beti grefier?

ERRETORA: Hura bera... Zure bigarren emaztea, Adela, berritz ezkondua da.

ERRIENTA: Berritz ezkondua?... Norekin?

ERRETORA: Preseski Jaun Grefierarekin.

ERRIENTA: (*Arrunt trixtatua*) Ez nuen bertze beldurrik.

ERRETORA: Mayi, beti Frantzinarekin bizi da, zu joaitan bezala...

ERRIENTA: Ho, ho! Zonbat saindamendu! Denak, hamar urtez!... Zertako bizi izan naiz?... Biziari errotik atxikia izan naiz. Batzuetan, kasik hil-korrokan; herriaz eta etxekoez, oroitu-eta, sumindura batek hartzen ninduen, behar nuela bizia beiratu, hek denen berritz ikusteko. Bizia beiratu dut, bainan etxekoak galdu ditut. Orai berdin zaut bizia galdurik ere, bizitzeko arrazoina galdu dudanez-geroz. (*Eztul-parrasta bat*) Joa naiz, joa!... Pitsik, pitsik ez naiz gehiago!

ERRETORA: Ez zozula tenoreko hitsari beha... Oroit zaite gau ilunaren ondotik, goizak argitzen duela.

ERRIENTA: Zer nahi duzu egin dezadan?... Zer bihar, egun baino gehiago? Ez dut etxerik ere nun sar... Horra zertan naizen, hoinbertze sofrikario eta esperantzen ondotik!

ERRETORA: Etxeaz ez zaitela griña. Aratsa da... Elgarrekin afalduko dugu. Hemen lo eginen duzu. Zure alderdiak hartu artio, ene etxea zurea izanen da...

ERRIENTA: (*Hunkitua*) Milesker, jauna! Ez zinezake amets, zure bihotzetikako solasek zer ongi egiten dautaten, hamar urte hautako basakerien ondotik... Milesker!... Zure moldek erakusten dute, zoin haundia den zuk zerbitzatzen duzun gaineko Nausia.

ERRETORA: Milesker ere zure konplimenduaz.

ERRIENTA: Federik ez dut, bainan ikusiak ikusi, fedearen alde naiz... Jainkoa kentzen duten tokietan, gizona aise hiltzen baitute. «Elgar maita-azue» erran duen Jainkoak du arrazoin. Elgar

ez badute gizonek maitatzen, mundu hau ifernu bat izanen da.

ERRETORA: Ez dugu bertzerik guk ere predikatzen. Biziaren esperientziak fedeari hurbildu zaitu.

ERRIENTA: Ba; izan naiz fedetik urrunago.

ERRETORA: Ale... Ez zazula gibelarat so egin, bainan aintzinerat... Pentsa-azu libro zarela... Zure herrian berritz... Alegeratzeko mementoa da hau zuretzat, eta ez trixtatzeko. (*Oihuz*) Ttanta!

GELARIA: Zer duxu?

ERRETORA: Jaun huni emozu otoi ganbera bat, eta hemen afalduko du... (*Errientari*) Ikusiko dugu elgarrekin bihar zer egin dezakezun... Preseski bihar gerlan hil soldadoen meza dugu.

GELARIA: Zato enekin, jauna. (*Jalitzzen dira*)

ERRETORA: (*Bakarrik*) Hau ixtorioa! Gizon hunek zer egin behar du orai? Ha zer solaspideak bihar herrian, berria hedatuko delarik bizi dela! Eta Adela?... Segur ere izanen dute erraiteko, dibortzatu hori zertako hartu dudan ene etxean... Bainan, karitatea, bere adixkideri bakarrik egin behar ote da?... Erljionearen etsaiek ere hori egiten dute... Mintza beite... Onezia da ene eginbidea. Onezia da jenden bihotzetako bidea... Hanbat gaxto, fedearen goratasunetik jujatzeko orde, beren apaletik jujatzen badute ene egitate.

OIHALA



BIGARREN GERTALDIA

Joka-lekua:

Elizako galeria. Han dagotzi Jaun Mera exarparekin, grefiera, eta bertze bizpahiru gizon. Prediku-aintzinean, errieta eta bertze bi gizon sartzen dira oraino. Bakotzak badu, bere sartzeko eta galerietan egoteko moldea... Ez apeza, ez emazterik, ez da ageri... Entzuten dira bakarrik.

KANTOREA: (*Entzuten da*) «Uholde baten pare»... (*Koblaren ondotik, errepika gizon eta emaztek. Kantoreak bigarren kobla ematen duelarik*)

MERA: (*Grefierari*) Jaz meza hiru zalditan ginuen... Zertako aurren, batekin bakarrik?

GREFIERA: Ez zuen, dudarik gabe, bertze zaldientzat pazkarik. (*Bigarren errepika eman-eta kantua ixiltzen da*)

MERA: Jes! Gure apeza, bera predikari.

GREFIERA: Ba, eta kopetatik hartzeko, badu zer erran. (*Predikua entzuten da... Predikua has-eta laster, errieta sartzen da, eta xutik egoiten, Jaun Meraren gibelean*)

ERRETORA: (*Predikuan ari*) Aitaren eta semearen... Girixtino maiteak: Egun dugu, gerla bururatzearen urte-muga. Hoin urte guti da gerla bururatua dela, eta nola jada zahartuak orduko oroitzenak. Oroitzapen heien atzartzeko, orduko xede onen pixka bat erreberritzeko, ez nuke nik mintzatu behar predikualki huntarik, baina han gerlan, sekulakotz gelditu diren hetarik batek. (*Hemen errieta sartzen da*) Gutarterat, bet-betan heldu balitz, o amak, zuetarik baten seme bat; o gerlako alarguntsak, zuetarik baten lagun bat, zer erran ote lezake harek, hemendik, prediku-alkitik?

MERA: (*Ahapetik grefierari*) Balitake pollitik, halakorik gerta baladi.

GREFIERA: Gure etxetik haste.

ERRETORA: (*Beti predikuan*) Harek erran lezakena lehenik, hauxet laiteke: Zuek, bizi zaretenak, nola gaituzue ohoratzen?... Ba, egun hau, gu ohoratzeke eguna izanen dela, legea egin duzue. Baina, nahi duzue elgarrekin egin ditzagun konduak, zer probetxu ekartzen daukun egun hunek, guri, gerlako hile-

ri? Hainitzentzat, goiz hau, oitotzik gabeko goiz bat izanen da. Beharbada gorputzaz mezan aurkituko dira, eta hilen oroit-harriko zeremonian; baina heien gogo, nun izanen da, nun? Zer on tiratuko dute gerlako hilek, heien goizeko urratsetarik?... Deus onik ez... Eta arratsaldean? Hainitzentzat izanen da bazkari on eta gormandizazko arratsalde bat. Eta, gainerat arratsalde batetarik, zer abantail dukete gerlako hilek? Bala bat baitezpadakoa ote zen gure herrian, holako egunetan?

MERA: Hori, enetako piko bat.

GREFIERA: Zonbat orenetan bururatzen da bala?

MERA: Gauerditan.

GREFIERA: Luza-azu bi orenak artio.

ERRETORA: Balaz ez ditugu hilak ohoratzen, baina profanatzen orenen buru; gauak egun hau tapatuko duelarik, gerlako hileri, zer laguntza diotegu igorrikerik izanen? Ez da, heien aintzinerat aingeru bat, guk igorri graziez betea, presentatuko, baina, deubrua, irri-karkailez, gure zikindurez kargatua. Ez du alabainan deubruak gaizki irri egiten; Jainkoaren izenean muntatu partidatik, harek baitu ttantto gehienik tiratzen?... Hortako, gerlako hilen izenean, galdatzen dautzuet, egun huni beira diezogun, zor zaion itxura... Agian, nehor ez da egungo zeremonietan aurkituko, kanpoz bakarrik eta jenderi begietarat errautsa botatzeko. Jendeengatik agertzen dena Jainkotiar, harek bere saria jada jendeenganik bildua du... Gure hilak ez dira kanpo-ohorez gose, baina oitotz-laguntza gose. Klerona-tuta eta kanpo horietako mintzaldiek ez dituzte hek demendrenik ontzen, ez badira arramantza horiek, barneko oitotzaz kargatak.

GREFIERA: Zer estimua duten, meriak eman ohorek!

MERA: Ba... Bakotxari bere antxuak eder.

ERRETORA: Oitotzik gabeko ohorek, iduri dute plata eder, baina hutsetan zerbitzatua laiteken apairu bat. Ohorea plata eder bat da, baina ez ditu hilak hazten, plata hortan ez bazaiote oitotza ematen janari... Egun hau beraz izan dadiela, bildutasunezko egun bat, zeren balin bada gerlako hilez oroitzeke eguna, da ere, denbora berean, bizientzat, gogoeta zintzo eta xede on batzuen erreberritzeko eguna... Ontsa zait



gerlan ibiliak, egun huntan, elgarrekin goxa eta solasta daiten, berdin apairu baten inguruan.

GREFIERA: To... Oixtiko plata orai betetzen du.

MERA: Ba, bera bazkaitiar delakotz.

ERRETORA: Bainan, ez dezatela bixtatik gal, zertako apailatua den egun hau: hilez oroitzeko eta ere bizia moldatzeko gisa hartarat, nun gure ondokoek ez baitute berritz ikusiko, guk ikusi duguna... Gerla guzien ondotik, gauza bera erraiten da. «Aski gerlatik. Hau azkena»... Bainan oroit gaiten, gerlaren erroa beti bizirik dagola... Gerla zertarik heldu da? Gerla heldu da, Jainkoa guganik baztertzetik... Gizon batek, Jainkoa bazter dezala bere baitatik, bere familiatik; haren baitan, haren familian, gerla eta desordrea sartzen dira. Nazio-ne batek, edo nazio-multzo batek, Jainkoa bazter dezatela beren solastatze eta legetarik, heien baitan eta artean, gerla-irrisku da. Hortakotz, gisa batez edo bertzez, Jainkoari jazartzen garen guziak, gerla-pitztaile gira. Gerla-pitztaile; beraz krima-egile. Ezen, Jainkoa hil-nahiz ari direnek, maizenik hainitz gizon hiltzen dituzte. Hortaz oroit gaiten bereziki, mundu huntan, zerbait kargu dugunak. Gure karguaz balia gaiten Jainkoaren eskualdea azkartzeko, ez desordrea fagoratzeko edo basa-ohorez gure burua apaintzeko. Kargulari, izan gaiten zerbitzulari eta ez oho-rekari.

GREFIERA: Xixtatzen duela, xixtatzen.

MERA: Aise da... «Hogoi eta hameka» eta «esku» ditu.

ERRETORA: Horra laburzki gogoeta zenbait, ene baitan ala direnak, hola-ko egunez. Gogoeta beharbada idorskoak, bainan egiak... Jesusek errana du, girixtinoek gatza bezala behar dugula izan lur huntan. Gatza gazi da... Bainan, gazi harek ditu haragi eta beste asko janari, ustelduratik beirutzen. Guk ere, nahi balin badugu mundu hau ustelduratik beiratu, jakin behar dugu gazi agertzen. Egun hau, beraz, izan dadiela, hilentzat altxagarri, eta bizientzat oroigarri. Agian, bizian ongi eginek, hiltzean saria merezituko daukute... Halabiz. (*Ez tul eta arrabots, denak xutitzzen dira*)

MERA: (*Errientea ikusi du*) Nor da, gibelego gizon hori?

GREFIERA: Ez da hemengoa... Zonbait eskale arrotz. (*Erretorak Credo hasten du, eta jendeak segitzzen dute*)

MERA: (*Kantu-denboran*) Jandarmeri begi-kolpe bat emozute, ikus dezaten nor den gizon hori.

GREFIERA: Ontsa da... (*Credo aintzinat ari dela...*)

OIHALA



HIRUGARREN GERTALDIA

Joka-lekua:

Barne bat, grefiera-baitan

ADELA: Ba, berdin du. Hor erran ditu, erran behar ez zirenak ere. Bala eta gainerateko, ez zituen aipatu behar, egin dituen bezala... Ez ditu hola meriako gizonak aise bilduko.

MAYI: Apezak, ttantta, ez du plazer dena predikatu behar, bainan egia dena... Eta egiak, maizenik norbaiti zimiko egiten dio.

ADELA: Ba, zu, dena apezentzat zare. Bainan uste duzua, eni ere plazer egin dautala, aipatu duelarik, balerat joaileek, hilak ez dituztela ohoratzen... Ni balean izanen naiz, senarra eta meriarengatik. Ez plazerrez, ez... Ene biziaren era hola delakotz... Ez dut uste hortan deus gaizkirik egiten dutan, ez eta ere hilen errespetua galtzen dudan.

MAYI: Zu, ttantta, aita zenaren gorputza, jaun erretorak ez duela elizarat sartu nahi-eta, arrunt asaldatua zira. Ez da, ez, bere baitarik ari, jaun erretora. Baditu, horrek ere, bere erreglamenduak segitzeko.

ADELA: Gaixo aita! Hori ez dirot onets. Herrian hura bakarrik izanen da elizakorik gabe ehortzia.

MAYI: Ez dauzkitzua bere arrazoinak eman, hortaz izan zirelarik haren ikusten?

ADELA: Ba, enekin ez da zurekin bezala... Enekin konplimentuak labur ditu, arras labur.

MAYI: Halako gizon mixteriozko bizardun bat sartu da erretor-baitan, ni han nintzelarik. Eni, luzaz beha egon da... Iduri zuen funtski ezagutzen ninduela... Eta, nigarrez hasi da «Mayi, Mayi» erranez. Barne guzia inarrosi daut.

ADELA: Nor zen ba?

MAYI: Ez dakit, bainan gero berritz ikusi dut. Soldado hilen mezan zen... Jaun Erretoraenerat sartu da, mezatik landa... Ontsa so egin diot... Han aloitzen bide da.

ADELA: Ez dakozia galdatu jaun erretorari nor zitaken?

MAYI: Ez zuen iduri, jaun erretorak ezagutzen zuela.

ADELA: Jes... Hau bitzikeria! (*Atea jotzen dute*) Aintzinat.

ERRIENTA: Agur.

MAYI: Huna nun den.

ADELA: Agur, Jauna. (*Errienta ixilik dago, xutik. Ezagun du barrea arras urratua duela*) Zer nahi zinuez?

ERRIENTA: (*Apur bat ixilik dago, zintzurra karrakatzzen duela*) Jartzen ahal niza, ixtant bat.

ADELA: Bixtan da... ori... Jar zaite hemen... Zer zira?... Eske ibilki?

ERRIENTA: (*Begiz denak jan nahi ditu*) Eske... eske ba... Ene gisan. (*Apur bat ixilik*)

ADELA: Zer hartuko duzu?

ERRIENTA: Etxe huntan, errienta bat bizi zena lehenago?

ADELA: Ba... Ene senarra zen... Ezagutu duzua?

ERRIENTA: Ba... Ezagutu dut... Hura eta ni arras bat ginen.

ADELA: Zer zira? Haren soldado-lagun zonbait?

ERRIENTA: Ba... elgarrekin egin dugu gerla, hastetik bururaino.

ADELA: Harekin zinena, presondegian ere?

ERRIENTA: Ba... harekin.

ADELA: Orduan, familiako berriak ere aipatzen zinituzten. Badakizu alaba ere bazuela.

ERRIENTA: Ba, Mayi...

ADELA: Huna, Mayi...

ERRIENTA: Mayi... Orduan ttipia zen... Geroztik handitu da.

ADELA: Alabainan, hameka urte abantxu baditu gero, gerlaren bururatzek... Eta, zu nungotarra zitut?

ERRIENTA: Denboraz, nunbaitekoa nintzen... Orai nehongoa.

ADELA: Nola zira hortaratu?

ERRIENTA: Biziaren itzuliek naute huntaratu.

ADELA: Ene senarrarekin zinena hil zelarik?

ERRIENTA: Ba, harekin nintzen.

ADELA: Badakizua haren gorputzaren so gagozila? Engoitik hurbildua bide da herrirat.

ERRIENTA: Omen ba... Jina ere dela diote zonbaitek.

ADELA: Jina, jina... Ez arazil!... Familia abisatuko ahal gituzte, auzoak baino lehen. Nun entzun duzu holakorik?... Edo zer?... jaun erretorak...

ERRIENTA: Ba, jaun erretorak zerbait badakike.



ADELA: (*Suspiretan*) Ha, gaixo senarra! Ho, zenbat oroitzapenen erreberritzea! Zer erraiten zautzun enetzat, familiarentzat, elgarrekin presonier zineztelarik?

ERRIENTA: Etxekoeri biziki atxikia zen.

ADELA: Ha, gizon ona zen ene senarra! Haren joaiteak, sekulan nehork beteko ez duen huts bat utzi du ene baitan. Badira oroitzapen batzu ezin urrunduzkoak. Jin baladi berritz hunarat, bere etxea, utzi bezala aurki lezake. Haren oroitzapenetan haren denboran bezala dira oraino etxe huntan mubleak... Egiazki, ez baitzen nor-nahi ene senarra. (*Errientak arrunt bihotza joa du. Xutitzen da*) Bainan, zuri zerbait egin zautzu?... Zer duzu?... Jar zaita... Hori, edan-azu.

ERRIENTA: Ez; milesker... Banoa.

ADELA: Zaude ixtant bat, jarririk. Zerbait har-eta gero urrunduko zira. (*Atea jotzen dute*) Aintzinat.

ERRETORA: (*Agertzen da*) Agur, jaun-andereak. (*Errientari buruz*) Ez ginen hola elgar adituak. Ni nintzen lehenik, zu aintzin, hunarat jitekoa.

ERRIENTA: Barka zadazu... Ez dut hitza atxiki. Tokiak eta jendeak ene begiz ikusteko, tirria izigarri batek hartu nu.

ERRETORA: Beraz, nik ekarri behar nuen berria, zuhaurek ekarri diozu. Ez dut komixione egiterik.

ERRIENTA: Nehork ez daki hemen gure berria, zuk eta nik baizik. Zure gain da beti argitasunaren egitea.

ERRETORA: Jaun grefierarenganik heldu naiz. Hura jakintsun ezarri dut.

ERRIENTA: Nola hartu du?

ERRETORA: Berria erran-eta, hartan utzia dut.

ADELA: Zer da? Gorputza etorri?

ERRETORA: Ba, zure senarraren gorputza herrian da.

ADELA: Nun da, nun?... Erradazuet!... Merian?

ERRETORA: Ez.

ADELA: Zer ba? Hilerrietan?

ERRETORA: Ez.

ADELA: Nun eman duzue ba? Nun da ene senarra? (*Erretora ixilik dago*) Bainan, mintza zaitetze? Nun da?

ERRIENTA: (*Eztiki*) Adela. (*Adelak ez du konprenitzen*)

ERRETORA: Errientaren gorputza, nun den? Huna nun den.

ERRIENTA: Adela, ba, ni naiz.

MAYI: Aita!

ADELA: Zu?... Zu?... (*Oihu batean, Mayiren besoetarat alditxartzen da*)

ERRIENTA: Ba, Mayi, zure aita naiz... Bizi naiz...

GREFIERA: (*Sartzen da, denak apur bat ixiltzen dira. Kexu izigarri batek hartzen du*) Zer da?... Zer gertatzen da hemen?

ERRETORA: Berria, oraintxet berean ikasi dute.

GREFIERA: (*Kexu errientari*) Zu, zertako jin zira hunarat? Bazter nahasterat... Zuk, zer behar duzu ene etxetik? (*Mayi eta Adela jaltzen dira*)

ERRIENTA: (*Oldartuz*) Zure etxetik? Zure etxea da hau, edo enea?

GREFIERA: Ene emaztea utziko duzu gero bere gisa.

ERRIENTA: Nork du emazte hori berea? Zuk edo nik?

GREFIERA: Hila, hil da. Zertako agertu zare toki hauetarat?

ERRIENTA: Ene falta dea bizirik enterratu banaute? Jazar zaita ni hiltzat ekarri nauteneri, eta ez eni.

GREFIERA: Jakin hemen nola ginen-eta, kopeta izan duzua toki hauetarat berritz agertzeko?

ERRIENTA: Ez ahal dut gaizkirik egin... Burua gora nunnahi agertzeko on ahal naiz!

GREFIERA: Zertarat jina zira? Zer pretenitzen duzu hemendik?

ERRIENTA: Gerlarat joaitean, emazte bat, haur bat eta etxe bat ene izeanean hemen banituen. Gerlatik heldu naiz, ontsasko pekatirik; joaitean hemen utzien galdatzea, ez ahal zautzu sobera!

GREFIERA: Gerla aspaldi bururatua da. Ez orai, agertzeko tenorea.

ERRIENTA: Bixtan da, gorputz hau hila nahiago zinuten errezebitu, ezenez-eta bizirik... Barkatuko dautazu, bizirik nahiago izan badut itzuli...

GREFIERA: Desohore emaiterat heldu bazira, jakin-azu desohore hartze ere izanen duzula.

ERRIENTA: Aise dituzu zuk ohore eta desohoreak. Hilari emango ziniozkan ohore berak, hartzen ahal ditu biaki!

GREFIERA: Zuk edo nik hemendik behar dugu aldatu. Baten lekua da hemen... Biak sobera gira.

ERRIENTA: Ondoko egunek erakutsiko dute nork beharko duen aldatu. (*Eztulka lotzen da*)

ERRETORA: Bon, huntan gauden ixilik... Bertze molde batez behar zuken gertatu buruz-burukatze hunek. (*Errientari*) Errana nautzun, otoi, ez hunarat, ni aintzin jiteko... Hobeko duzu,



jauna, erretiratzea. *(Beti ezfulka, jalitzen da)* Zuen penari, atzemanen ahal diogu zerbait xuxentze.

GREFIERA: *(Kexu erretorari)* Zer du horrek hola bazterren nahasterat jiteko? Aski zuen lehenago, bizi zelako berri emaita.

ERRETORA: Gaizki mintzo zira, Jan Piarre... Gertatzen dena, ez da horren faltaz.

GREFIERA: Ez enez ere... Ene emaztearen ondotik, ez dabilala ibil... *(Oihuz)* Adela! Agert zaite hunarat!

ADELA: *(Agertuz, nigarrez)* Uste duzua, Jaun Erretora? Zer izigarrikerial... Holakorik, nun gertatzen da?

GREFIERA: *(Bortizki Adelari)* Eta zuk, berritz heldu bada hunarat, atea hetsiko diozu gero.

ADELA: Hainbertze urteren buruan!... Denek hila zela uste-eta!... Hoho-ho!...

GREFIERA: Nork daki nun eta nola bizi izan den, orai artio!... Menturaz, bertze zombait emaztekin hor gairi...

ADELA: Eta, eni behar zautan hau ere gertatu!

GREFIERA: Nork daki ez ote duen familia bat ere berekin, gibeletik.

ADELA: Ezin sinetsia da... Eta bizkitartean, ezin ukatua.

GREFIERA: Hasteko, hetika da gizon hori... Ez duzua aditu horren zakur-eztula?... Nork daki ez duen kotsurik ere!... Pu! Ustela!

ERRETORA: Jan Piarre, ez gaiten horren eritasunaz trufa. Eritasuna beti urrikaltzeko da... Gainerat, hunena ohorezkoa izan ditake...

GREFIERA: Ohorezkoa ba... Jazko haizea bezala. Hasteko, ez dadiela hunarat berritz agert. Adela ene emaztea da, eta ez harena. *(Adelari)* Ba, zu enea zira, eta ez harena. Ez dea hori hola, Jaun Erretora?

ERRETORA: Gizon-legez ari zirez edo Jainko-legez?

GREFIERA: Zer, gizon edo Jainko-legez? Ez dea berdin?

ERRETORA: Gizon-legez, meriako sinadura da konda. Jainko-legez berritz elizakoa... Gizon-legez, zure emaztea, badut uste beti erriantaren emazte den...

GREFIERA: Nik ez diot meriako sinadurari baliorik kausitzen. Elizako sinadurak du egiazko balioa... Jainko-legea da alabainan lehen... Ez dea hola, Jaun Erretora?

ERRETORA: Jainko-legez, Adela zure emaztea da. Ez da behin ere erriantaren emazte izan ere, ez baitira Elizaz ezkondu...

GREFIERA: Entzuten duzua, Adela? Jainkoaren aintzinean ene emaztea zira, eta ez harena. Harekin merian eman duzun sinadurak

tirit ez du balio. Eta hura, dagola nahi duen tokian, nitarik urrun... Errazu berritz ere, Jaun Erretora, errozu Adelari, ene emaztea dela gero, eta ez harena.

ERRETORA: Baietz ba. Zurea dela, Jainko-legez.

GREFIERA: Bon, ontsa da... Entzun duzu. Adela... Eta, hura utziko duzu gero bere gisa. Entzuten nuzuia? Hala zer? Zu ere ni saltzeko prest zirez?... Hee?... Emazu ba erreputa! *(Mabaina joz)* Emango duzua erreputa? Bai ala ez?... Mintza zaite hemen, Jainkoaren ordainaren aintzinean! *(Adela nigarrez jalitzen da)*

GREFIERA: Horra!... Ikusten duzu, Jaun Erretora?... Horra nolakoa den ene emaztea.

ERRETORA: Iduritzen zaut leunkiago erabiliz, aiseago bilduko duzula. Konpreni errexa da, bihotza pixka bat eritu zaiola, hainbertze urtez maitatu duen gizon bat berritz ikusi-eta.

GREFIERA: Ez du bihotz-hausterik izan behar horrentzat. Ez du hori bere senarra, baina ni... Bere sentimenduak beira ditzala bere senararentzat, ez auzoko gizon batentzat.

MERA: *(Alegeraki sartuz)* Agur, Jaunak.

GREFIERA ETA ERRETORA: Agur, Jaun Mera.

MERA: *(Irriz)* Hauxe da ixtorio bitzia ikasi dudana!... Boz-emaile bat gehiago behar omen dugu herrian.

GREFIERA: *(Kexu)* Irri egiten duzua, irri?... Ez da, ez, hemen irrikik!... Zir-tzil tzar hori!... Zertako behar zuen horrek hemen agertu? Gehiago dena, ene emaztearen gainean ditu pretentzio-neak... Erakutsiko diot nik Adela norena den: harena edo enea.

MERA: Badut uste, legez, Adela oraino haren emazte den... Bizi denaz geroz...

GREFIERA: Zer zira? Zu ere, ene kontra?

MERA: Zure kontra? Ez. Nola den legea dut erraiten.

GREFIERA: Legea? Nik zure legeari, tu egiten diot... Ez da meriako sinadura konda, bainan elizakoa.

MERA: Ez dakit elizako sinadurak baliorik izanen duen tribunaletan... Erriantak segurik bere konfientzia, meriako paperetan du. Han da meriarat jina, bere paperak berritz behar dituela muntatu, orotaz gabetua baita.

GREFIERA: *(Arrunt kexu)* Paperak ditia galdatzen?... Emanen diozkat nik paperak!... Bi ostiko baitiozkat norapait luzatuko!



NERA: (*Idorki*) Jan Piarre, oroit zaite, grefierak ez duela manatari behar merian, bainan zerbitzari... Mera da merian nausi, eta ez grefiera... Zato enekin, eta errespeturik ez gal. (*Jalitzzen dira*)

ERRETORA: (*Bakarrik*) Gogoez egin dutela laster kurritzea! Beharrik, Jainkoa ez da gizonak bezain aldakor. Atzo, errieta jaun haundi... Meriaz eta elizaz, ohoratu behar zela... Egun, berritz, meriatik ostikoz kendu behar duela delako errieta, eta ere ez on, zakurra baino gehiago. Ageri da hortarik, ez zuela ez hila ohoratu nahi, bainan ba bere kaprizia... Errientak, nolaz du egun, atzo baino ohore gutiago merezi?... Beharrik, hilak ez dira pizten, heieri ohore emaiten ari direnen aintzinean. Piztu balire, ha zer ostikoak eman letzaketen zenbaiterik! (*Mayi agertzen da*) Ha, hor zirea, Mayi? Nun da andere Adela?

MAYI: Ezindua... Zerbait beroki behar diot apailatu.

ERRETORA: Zer zautzu, Mayi?... Ez zautzuia barnea urratu, hola aita berritz ikusi-eta?

MAYI: Ho! Oraino arras nahasia naiz. Kalapio guziak joan zauzkit... Ez nezaken hitz bat ere jali... Ho! Ama behar nuke lehenbailehen abisatu.

ERRETORA: Errazu, Mayi. Ez dakit gogoratu zautzun. Oren handitan sartzen gira... Zure aitaz naiz mintzo; zer bilakatu behar duen.

MAYI: Ba, nik ere pentsamendu bera izan dut.

ERRETORA: Zure eta ene eginbidea garbi da: Jainkoaren legea hautsiz, berexiak zirenak behar ditugu elgarretaratu.

MAYI: Uste duzuia, amak berritz aita hartu nahiko duela?

ERRETORA: Hori izan dadien, egin-ahal guzien egitea, guri da. Batetik, nahasien xuxentzeko; bertzetik nahaskeria handiagotarik bazterren beiratzeko; guk makurren antolatzerat behar dugu entseatu, eta ez bere gisa utzi edo emenda, xuxen dezakeguna.

MAYI: Lan gaitza izanen da...

ERRETORA: Zer lioke amak? Aita onar lezakea berritz

MAYI: Ez aise.

ERRETORA: Zuk behar zinuek, ama hortarat deliberatu.

MAYI: Nik? Ba, zombait eta zombait aldiz, amets hori egin izan dut, aita eta ama berritz baketurik, enekin etxean ikusteko...

ERRETORA: Beharbada, orai da amets hori bururatuko. Entsea gaiten beti.

MAYI: Ene eskualdetik, egin-ahalak eginen ditut.

ADELA: (*Sartuaz*) Hau izigarrikeria da ba, haatik!... Ez dakit gehiago nun dudana burua... Nik zer behar dut bilakatu?

ERRETORA: Andere Adela: ez duzu buru-galtzerik. Zure eginbidea garbi da... Zure senarra, Jan Piarre, behar-bada pixka bat idorki mintzatu zautzu; bainan erraiten zuena, xuxen da: Jainko-legez, Jan Piarren emaztea zira, eta Jan Piarre bakarrik.

ADELA: Uste duzuia, gauzak hoin errex direla?

ERRETORA: Jainko-legea hartzen baduzu gidari, gauzak arras errex dira.

ADELA: Bainan konpreni-azu ere zertan ditaken ene bihotza, holako kasu batean... Hainbertze maitatu dudana gizona... Gizon ona...

ERRETORA: Ba, zure xangrina konprenitzen dut... Bainan ez gaiten itsu bilaka xangrinaz... Eginbideak gida gaitzala nigarren arte-tik.

ADELA: Ha! Muble hauk, etxe hau, harenak dira. Harek utzi bezala...

ERRETORA: Zure buruan ala dadiela, ez izan dezakezun, bainan zurez duzun gizonaren itxura.

ADELA: Ez dakit, ez dakit gehiago zer bilaka... Gure Jainkoak, zertako nau hola hertsatzen?

ERRETORA: Beha-zu, Andere Adela: gure Jainkoa aipatu duzu... Nik ez dautzut gauza bat bertzerik erranen... Oroit zaite huntaz: Hainitz bide-mota har ditazke mundu huntan; bainan, ontsa jali nahi baduzu, segi-azu Jainkoak manatu bidea. Eta, bertzeak utzaitzu bazterrerat. Gosta ahala gusta, bete-azu zure eginbidea... Ez zautzu dolutuko... Eginbidea... eta, agur! (*Jalitzzen da*)

ADELA: (*Gogoetatua*) Eginbidea... eginbidea...

OIHALA



LAUGARREN GERTALDIA

Joka-lekua:

Edozoin barne, Mayiren etxean.

MAYI: Ba, ama; ene biziko plazer handiena laiteke, zu eta aita, berritz elgarretaratuak ikustea.

FRANTZINA: (*Prestatzen ari, elizarat joateko*) Pentsa-azu, haurra; hamazazpi urte badu berexiak garela elgarretarik. Ez du balio elgarretaratzea, amodiorik gabe bizitzeko. Hobe dugu hol'hola egon.

MAYI: Ama, aitz naiz beldur... zer egin behar duen orai... bakarrik bizi? Edo, ez ote den, behar ez den amodio bati berritz ere lotuko?

FRANTZINA: Hor du Adela. Aski du horrekin antolatzea.

MAYI: Ttanta Adelak, ez du gehiago aitarik nahi.

FRANTZINA: Ha? Zer dakizu?

MAYI: Nihauri errana daut... Aita eri jina dela bularretarik. Zanatorio zombaitetarart sartu behar duela. Zertako berexiko den bere senarrarengatik... Berdin, ez dela aitarekin bizitzen ahal.

FRANTZINA: Uste duzua aita apailatu nahiko duela berritz enekin? Ez duzu hori ontsa ezagutzen... Sobera humiliatzea galdatzen diozu.

MAYI: Han erabiltzeak hainitz ondu du. Jaun erretorak errana daut, gure erlijionekeo sentimendutarik urrats batean dela.

FRANTZINA: Ez zen denboraz hola.

MAYI: Eriak senda ditazke, ama.

FRANTZINA: Ez dakit aski konprenitzen duzun, zer sakrifizio izigarria laiteken enetzat, berritz aitaren hartzea. Urus naiz zurekin. Gero ere hol'hola segituko ahal dugu... Ene bizi-molde, usaiak badituz... Zer nahi duzu egin dezadan gizon batekin, bereziki eri batekin?...

MAYI: Badakit zer sakrifizio galdatzen dautzudan, ama... Bainan delako gizona, ene aita da eta zure senarra... Deitoragarri laiteke,

gure arta eskasian, gal baledi mundu huntakotz eta bertze-kotz.

FRANTZINA: Beha-zu Mayi; zuri plazer egiteko, bainan hortakotz bakarrik, onartzen dut aitarekin berritz adixkidetzea. Bainan berak lehen-urratsa egitekotan. Ni, haren ondotik ibiltzea, hori ez eni galda... Holakorik sekulan, Mayi.

MAYI: Milesker, ama, emaiten dautazun esperantzaz. Aitari, araberan mintzatuko naiz... Ikusten dut ez duzula bederen hastio.

FRANTZINA: Aita hastio, ez. Behin ere ez dut hastiatu. Sobera ba, maitatu izan dut... Ez da dena haren falta, hortaratu bagira... Adela ba, hori hastio dut. Hori izan da ene biziko makurra... Bon, elizaraino banoa. (*Jalitzzen da*)

MAYI: Ontsa da, ama. (*Bakarrik*) Ha, dibortzatuen haur dohakabeak!... Aita eta ama, biak berdin maite, eta, biak betan ezin goza. Batetik bertzerat iheska ibili behar... Heien arteko amodioaren kantua entzuteko orde, heien arteko arranguren entzule beti behar izan... Ez heien haur, bainan heien jajari bilakatua... Ez dakit dibortzak ait'amen bizia antolatzen duen... Dakitana da, ene gostuz, haurren bizia pozoinatzen duela ongisko.

ERRIENTA: (*Leibotik*) Mayi, Mayi...

MAYI: Jes! Zu hemen, aita?... Sar zaite, aita... Zato barnerat.

ERRIENTA: Ez... Ama ikusi dut ateratzen, eta zurekin mintzatu beharrez jina naiz.

MAYI: Sar zaite, aita... Barnean hobeki izanen gira...

ERRIENTA: Bon beraz.

MAYI: (*Bakarrik*) Lehen aldikotz, aita ikusiko dudala barne huntan. (*Aitari*) Kontent naiz, aita, zu barne huntan ikusteaz. Jar zaite, aita.

ERRIENTA: (*Zintzoki, herabeki mintzo*) Errazu, Mayi: Ez dut beharbada ontsa egiten zuri buruz jitea, bainan barneko ezin-egonak huntaratzen nau. Behar dautazu zerbitzu bat egin.

MAYI: Egiten ahal dudana balin bada, gogotik...

ERRIENTA: Ba, egiten ahal duzuna da.

MAYI: Zer zerbitzu nahi zinuen, aita?

ERRIENTA: Zu, ttanta Adelarekin maiz gurutzatzen zira...

MAYI: Alabainan, laster Andrekin espos-eta.



ERRIENTA: Adela ezin dezaket ikus buruz-buru. Ene iheska dabila, edo bere baitarik, edo hobeki, Jan Piarren beldurrez... Letra bat igorri eta, ez daut erreputarik eman.

MAYI: Eta?... Zer nahi diozu ttantari?

ERRIENTA: Zu baitan baitut fidantzia, nahi diozua eskutik eskurat letra hau ixilka pasatu?

MAYI: Zure letra ttantari pasatu?

ERRIENTA: Ba, Mayi... Ene sentimenduak hortan agertzen diozkat... Nahi nituzke ber-bidez, harenak enetzat jakin... Mintzatzen zautzua nitaz?

MAYI: Ba, aita... Frangotan mintzatzen gira zutaz, buruz-buru girelarik, ttantta eta ni.

ERRIENTA: Zer erraiten dautzu?

MAYI: Aita, pena egingen dautzut...

ERRIENTA: Mintza zaite aise...

MAYI: Egiaz dautzut, aita; ttantta Adela ez zaitu gehiago bere gogoko.

ERRIENTA: (*Kexurik*) Gezurra diozu.

MAYI: Ez, aita; egiaz mintzo naiz.

ERRIENTA: Badakit; ez duzu nahi ni harekin berriz apaila nadien. Zu ere ene kontra zira.

MAYI: Aita!

ERRIENTA: Ha! Barka zadazu... Zainak gontzetik ateraiak ditut... Ene bizia ez da bizi bat.

MAYI: Te!... Huna nun ikusten dudan ttantta heldu... Hunarat buruz heldu da... Ba, ba, hunarat heldu da... Gorde zaite.

ERRIENTA: Nun?

MAYI: Ate hunen giblean... Ikusiko duzu; zutaz mintzaraziko dut, ahal badut... Bainan, ez zaitela, otoi, ate huntarik jali... Bertze hortarik zoazi kanporat... Ez nuke nahi, ttanttak jakin dezan gure jukutria.

ADELA: (*Leihotik*) Mayi... Sartzen naiz ixtant-ixtaño bat.

MAYI: Jes! Zu, ttantta?... Sar zaite, sar...

ADELA: (*Sartuz*) Ba, baliatzen naiz hunarat jiteko, ama elizan den denboran. Oas, atzotik hunarat, zu ikusi nahian, errabiatua nabil.

MAYI: Zer berri arrado zinuen eni ikasteko?

ADELA: Ba, Mayi, letra bat izan dut sekretuan. Hura ukanez-geroz, ez naiz gehiago bizi... Pentsa norenganik?

MAYI: Norenganik?

ADELA: Aitarenganik... Ba, Mayi; zure aitak izkiriartzen daut. Gaixoa, beti nitaz arras ilusitua dago. Ez diot erreputarik egingo... Jan Piarrek ikas baleza letraz guruzatzen garela, xahu bainintek. Ez dakozua zuk esplikatzan ahal, ez dezan gehiago konda ene gainean?

MAYI: Arras utzia duzua burutik?

ADELA: Alabainan, Mayi, ikus-azu zuhaurek. Aita eri da... Zanatorio bate-tarat sartu behar omen du... Ez naiteke harekin bizitzerat joan. Jan Piarre utzi-eta, zer egingen dut? Nihaur gelditzerat heldu naiz. Eta gero, jaliko dea sekulan zanatoriotik? Jalitzen bada ere noizbait, ez dut gizon bat izanen ene lagun-tako, bainan eri bat tratatzeko.

MAYI: Ttantta, ez dautzut gordetzen: ontsa zaut Jan Piarrekin egon zitezzen. Bainan ez zuk emaiten duzun arrazoinarentzat. Jan Piarrekin egon behar duzu, Jainko-legez zure senarra delakotz, eta ez, zure abantaila hortan delakotz. Jainko-legez ene aita zure senarra balitz, estakuru guziengatik, aita beharko zinuen segitu, eta ez Jan Piarrekin egon.

ADELA: Hori ere nahi dut, Mayi... Bainan, bertze-alde deusek ez nau pusatzan Jan Piarren uzterat. Zure aita ba maitatu izan dut; bainan hoinbertze urte badu Jan Piarrekin naizela... Zer nahi duzu? Hura joan zaut burutik... Adina hor heldu zaut. Ez naiteke berriz ere bizitza berri bati lot... Hori behar zinioke esplikatu aitari... «Amodioa» erraiten da... Ba, amodioa gauza ederra da, bainan denborak bertze itxura bat emaiten diote gauza bereri.

MAYI: Ontsa da. Zuk aipatuak aitari erranen diozkat.

ADELA: Eri baita, eta minbera, aski dazkotzu polliki apailatzea arrazoin horiek... Eztiki, ez ditzan bakarrik jasan, bainan onart. (*Atea joiten dute*) (*Asaldatua*) Oas, nor da hor?

MAYI: Aintzina... (*Errienta agertzen da, kara idor bortitzez batekin*)

ADELA: (*Harritua*) Jes... jes... zu hemen?

ERRIENTA: (*Errabian*) Ba, ni hemen... Zer da gero?

ADELA: (*Alegia hunkitua*) Ho, gaixoa!... Nola zira? Ho! Zu ikusteak barne guzia nahasi daut.

ERRIENTA: (*Idor eta orroaz*) Adela, aski! Ask! Ask! komediarik!

ADELA: (*Harritua*) Zer? Zer duzu?

ERRIENTA: (*Orroaz*) Ask! Eta zoazi hemendik, begien bixtatik! Zoazi, edo krima bat gertatuko da hemen. (*Adela, ikaratua, jalitzen*)



da) (*Errienta, bakarrik, barat eta hunat dabilala*) Ha emaztea!... Fida zaitetze zuek emazteari! Sakrifika-azue zuen burua, gal-azue zuen osagarria bertzeen zerbitzuko. Eta zatozte salbatu dituzuenenganat... Ez zaituzte zakurrak baino gehiago ikusi nahiko. Etxekotarik haste. Zer-nahi erranka, zertako ez zaretan han hil... Salbatu duzuen bizi-pizarra poxolu zaiote. Bakotxa bere... gizona gizonarentzat otso... Hanbat gaxto flako balin bazare. (*Jarririk, ez-tul parrasta bat egiten du, gogoetatua*)

MAYI: (*Ez-tiki*) Aita, nahi duzua zerbait hartu?

ERRIENTA: Ez... Milesker.

MAYI: (*Apur baten buruan*) Aita, ez zaitela hola asalda... Hor naiz ni ere... Ez zaitut nik abandonatuko.

ERRIENTA: Milesker, Mayi. (*Apur bat ixilik dagotxi*)

MAYI: Aita: Beharbada pena eginen dautzut aipatuz...

ERRIENTA: Zer?... Aipa-azu halere.

MAYI: Zertako ez zinteki berriz amarekin biziko? (*Apur bat ixilik*)

ERRIENTA: Ba... Frangotan gauza bera pentsatu dut; bainan...

MAYI: Bainan?

ERRIENTA: Ahalge naiz. Amak ez daut sekulan barkatuko.

MAYI: Ama ez duzu mespresatzen?...

ERRIENTA: Ez, ama emazte errespetagarri bat izan da... Ez dut bertzerik egundaino erran harentzat. Ez dugu biek elgar aditu... Ni laxoegia nintzen harentzat, eta hura seriosegia enetzat... Ez dugu bertze makurbiderik gure artean. Harek fedea bazuen bere sakramenduan azkar egoiteko. Nik, ez nuen harek bezala, ni beiratzeko, sinestearen indarra. Okaxioeak beretu nau.

MAYI: Nik badakit, amak beti bere bihotzean zaituela... Ez duzua uste, aita, hobe zinukela hemen egoitea, ba zuretzat, eta ba guretzat ere?

ERRIENTA: Amak ez du sekulan nahiko.

MAYI: Eta, nahi balu?

ERRIENTA: Ahalge naiz lehen urratsaren egiteko... humiliatzeko.

MAYI: Ez duzu humiliatzerik izanen. Nik galdaturik itzulia izanen zira.

ERRIENTA: Jendeak, adixkidek zer erranen dute?

MAYI: Jendetaz zirea kexu? Ez zirea ohartu, zure gostuz, zoin aldakor diren?

ERRIENTA: Arrazoin duzu.

MAYI: Aita, dakizun bezala, laster espos naiz. Egun hartan, ait-amen erdian nahi nuke sartu elizarat. Orai artio, aita, bizi izan zare zuretzat. Pixka bat soberakin bat bezala izan naiz, ni, zure bizian. Ene plazerra laiteke, aita, zu eta ni elgarrentzat, zerbait gehiago izan gaiten.

ERRIENTA: Zuzen mintzo zira, Mayi... Entsea zaite, otoi, zerbait antolatzerat, ama eta ene artean. Agian erreusituko duzu... (*Ez-tul-parrasta bat*) Banoa; hemengo solasek lehertu naute... Jakinaraz ezadazu, zerbait bururatzen baduzu. (*Jalitzzen da*)

MAYI: (*Bakarrik*) Jainko ona, milesker. Naski, hoinbertze otoi tek orai ekarriko dute beren fruitua... Mementokotz deliberatuak dira... bainan, nola eginen ote dute lehen buruz-buruzkatzea?... Ha!... Abiadura hunek segida ona izanen ahal du... Zer egin?... Galda baneza kontseilu jaun erretorari... Ho! Huna ama. (*Ama sartzen da*) Ama, gaitzeko bisitak izan ditut, zu elizan zinen denboran.

FRANTZINA: Nor eta nor izan zauzkitzu?

MAYI: Biek, ni bakarrik nahi ninduten ikusi, zu lekuko gabe.

FRANTZINA: Nor zinituen ba?

MAYI: Aita eta ttantta Adela.

FRANTZINA: Ha? Zer nahi zuten?

MAYI: Elgarren sentimenduen berri nahi zuten jakin eneganik.

FRANTZINA: Eta...

MAYI: Orai badakite elgarren berri. Ttanttak ez du aitarik nahi, eta aitak despeida eman dio.

FRANTZINA: Eta aita zer bilakatzen da?

MAYI: Hori, hor orai bakarrik.

FRANTZINA: Ha, Adela, Adela!... Ez orai, bainan aspaldi behar zion aitak despeida eman. (*Apur bat ixilik*)

MAYI: Errazu, ama: Aipatu diot gero aitari berriz hunat bizitzera jitea.

FRANTZINA: Ha, ba?...

MAYI: Jinen liteke, zuk onartzea segur balitz... Zure beldur da.

FRANTZINA: Bera joan da; bera jin dadiela gibelerat... Bere tokia beti hemen du, prest haren errezebitzeko; bainan ez nitzaio ni ondotik ibiliko. (*Apur bat ixilik... Atea joiten dute*)

MAYI: Aintzina.

ERRETORA: (*Sartuz*) Agur, andereak.

FRANTZINA ETA MAYI: Agur, Jaun Erretora.



MAYI: Ori, memento onean heldu zira. Berri handi bat badugu zuri erraiteko.

ERRETORA: Zer berri?

MAYI: Aita, oraikotik, arras berexi dela ttantta Adelarenganik, eta, (*keinu eginez*) berritz amarenganat jiteko prest dela, amak onartu nahi badu segurik.

ERRETORA: Amak onartu nahi ahal du?

FRANTZINA: Oraintxet erraiten nion Mayiri... Jin dadiela; bere tokia utzi bezala atzemanen du.

ERRETORA: Jin dadiela... Bainan, laketuko dea hola hozki errezebitzen baduzu?

FRANTZINA: Zer nahi zinuke, Jaun Erretora? Burua gora sar dadien?

ERRETORA: Burua gora, ez... Bainan ez eta ere zakur joa bezala.

FRANTZINA: Ez diot nik okaxionerik miatuko, berak ez badaut miatzen.

ERRETORA: Konpreni-azu, andere Frantzina, zure senarrak eginen duen urratsa, izanen da, barkamendu galdatzen duelako aitorra. Hainitz gostako zaio urrats hori... eta hortan badu merezimendu... Hortako ez duzu hura errezebitu behar arrotz bat bezala, bainan maite duzun ardi errebelatu bat bezala... Hunat sar dadiela humilki, nahi dut, bainan ez humiliatuki.

FRANTZINA: Ez dut gaizkituko... Ahal bezen goxoki mintzatuko nitzaio. Bainan, doi-doia bizi den brasari, ez galda su-lamarik.

ERRETORA: Sarrera ona egitea bera ez da aski izanen... Gizona baita ezkontzaren buruzagi, zure senarra, barkamenduzko alkitik, ohorezko tronurat beharko duzu emeki altxatu. Erran nahi dut, zure senarrak, hemen senar beharko duela bilakatu, ez mutil egon.

FRANTZINA: Egin-ahalak eginen ditut hortakotz. Bainan, jauna, orotako denbora behar da.

ERRETORA: Denbora ba, bainan oroz gainetik: amodioa... Bon eta noiz sartzen ahalko da hemen?

MAYI: (*Keinu eginez*) Ho! Segidan hoberenik.

ERRETORA: Ontsa da... Erranen diot jin dadien... Banoa...

MAYI: Heldu naiz ni ere zurekin.

FRANTZINA: Ha, gaixo ni... Zer tormentan emaiten nauzuen!

ERRETORA: Tormenta ona. Iguzki-aintzineko galerna, Andere Frantzina. (*Jalitzzen dira*)

FRANTZINA: (*Bakarrik*) Ho! Ez dakit nun dudan burua... Ez eta ontsa ari nizan ere... Gure Jainkoak gida nezala. Sakramenduz hartu

nuen gizona, galtzen ari da. Eri arimaz, eri gorputzaz... Hura behar dut ondu eta salbatu, ahal badut... Horra zer xedek nauten ene urratsetan gidatzen; horiek, bertze pitsik ez.

ADELA: (*Leibotik, trufa mehar batekin*) Hal... Kontent zira?... Berritz ere bildu duzu...

FRANTZINA: Enea bildu, ez bertzerena ebatsi, Adela.

ADELA: Uzten dautzut, uzten dautzut gogotik.

FRANTZINA: Nahi ala ez. Adela... Berak utzi zaituenaz geroz.

ADELA: Berak ni utzi?... Hi, hi, hi!... Nahi izan banu...

FRANTZINA: Zertako zabilta beraz, oraino ere, ondotik?

ADELA: Erran nahi nautzun bakarrik: ez duela balioko hari burua ene kontra muntatzea. Berdin gogotik uzten dautzutala.

FRANTZINA: Ondarrak xakurrari bezala, Adela.

ADELA: Zuhaurek diozu, Frantzina.

FRANTZINA: Jeloskeria ahal bezala itotzen da.

ADELA: Ni jelos; hi, hi, hi!... Enea badut, Frantzina, eta, ez dena hetika.

FRANTZINA: Zureaz kontentatu beharko, bertzerenak ezin gehiago bilduz.

ADELA: Bertzerenak aise bilduko, oraino ere; ez bainaiz zu bezen zimeldua.

FRANTZINA: Alabainan, usaia ere baduzu hortakotz, nik baino gehiago.

ADELA: Lan hortako, zuk nahikeria eta nik ahala... Sofri hor! Eta urus izan zaite, andere espos-berria.

FRANTZINA: Zu ere ba, andere espos-higatua. (*Bakarrik zainetaratua*) Emazte zikina, higuina! Bazterren nahasle gaxtoa! Kreatura madarikatu batzu badira mundu huntan, xuxenbidea jasan ez dezaketenak. Oilo tzarrak, ontsa lantu baratzerat bezala, xuxen joan direnen aztaparkatzerat ekarriak dira... Zer ez da jasan behar, holakoen auzo delarik! (*Atea joiten dute*) Aintzinat.

ERRIENTA: (*Sartzen da, herabe, humil*) Haur prodigoa da berritz etxerat, gonbeni bazautzu haren errezebitzea. Hutsak izan ditut zure alderat... Urrats hau hainitz gostatzen zaut... Hobendunaren aitorta errexago da, sendi delarik, jotzen den atearen gibeletik bihotza ez dela idorra... Barkamendu galdatzen dautzut. (*Frantzina nigarrez lotzen da*) Badakit. Hainitz bertuteren jabe behar da, ene kasuan denari barkatzeko.

FRANTZINA: Iraganaz ez dut nahi oroitu.



ERRIENTA: Milesker... Su berri bati jarraiki nintzen; bainan biziak argitu nau, gorputzen arteko sua dela lastozko; erlijionez finkatu sua bakarrik, egurrezko.

FRANTZINA: Izan zaite, hemen lehen bezala, zure etxean.

ERRIENTA: Gorputza hautsi eta amodioa errautsi... Oraino, utzi banindu makur zenaren xuxentzeko... Ez; utzi nau, goxokiago biziak satifatzeko.

FRANTZINA: Pasatuak ahantzirik, beha dezogun geroari. Hainitzen hutsa da, biziari galdatzea eman dezaken baino gehiago.

ERRIENTA: Arrazoina duzu. Ez galda biziari, eman dezakena baino gehiago... Badakizu osagarria galdurik etorria naizela. Ene tokia zanatorioan da.

FRANTZINA: (*Bizi-bizia*) Enekin baketzekotz, enekin beharko duzu bizi.

ERRIENTA: Zurekin bizi? Nola nahi duzu, dudan eritasunarekin?

FRANTZINA: Ez ote da ene ofizioa, erien artatzekoa?

ERRIENTA: (*Hunkitua*) Zula... Hori enetzat egin baitzinezake?

FRANTZINA: Enetzat ez zare bakarrik gizon bat, bainan ene senarra.

ERRIENTA: Milesker, Frantzina... Ez nuen hoinbertze merezi. Agian, zure ongiak ez naiz gaizki baliatuko.

FRANTZINA: Nahi fermua delarik, horrek berak eginbidea errexten du.

ERRIENTA: Fermu izaiteko nahia banuke. Bainan, orai artio, ahuleziak gehiago gidatu nau, fermutasunak baino.

FRANTZINA: Hortakotz, gauza bat proposatzen dautzut: Urrun gaiten herri huntarik... goazen bertze norapait bizitzerat.

ERRIENTA: Norat?

FRANTZINA: Mendi-aire den toki zenbaitetar... Zure osagarriarengatik batetik, eta bertetik barnez deskantsuago bizitzeko... Hemengo airea kutsatua baita gure gorputz eta arimentzat.

ERRIENTA: Zuzen mintzo zira... Gogoz amestua naukana, bainan sekulan proposatzerat atrebituko ez nintzena, horra nun zuhaurek galdatzen dautazun. Sentimendu honek adimenduaren argia xorroxten du. (*Atea jotzen dute*)

FRANTZINA: Aintzina.

ERRETORA: (*Irriño batekin*) Eta? Hautsia zena peraxatua dea, edo behar zaituzteta peraxatzen lagundu?

ERRIENTA: (*Alegeraki*) Ez, ez dugu peraxatzeko laguntzale beharrik.

ERRETORA: Hobe, hobe, eta Jaunari milesker! Ba, beraz ezteien zerbitzaria sar dadiela. (*Oihuz*) Sartzen ahal zira, Mayi.

MAYI: (*Lorietan sartuz*) Ha, azkenean, aita eta ama badituz etxean! Tenore huni ohore zor zaio. (*Zare batetik jalitzen ditu, lore buketa, edari eta bixkotx*)

ERRETORA: Zer dituzu hor?

MAYI: Hauk? Ontsa lana egin duzelakotz saria.

ERRETORA: Ba, eta lan horren beretter, zu, Mayi...

MAYI: Eta lan horren apezka, zu, Jaun Erretora.

ERRETORA: Bon; orduan, ezkontza ohoratzen ahal dugu, jaun-andere esposak, apezka eta beretterra hemen direnaz-geroz. (*Atea jotzen dute*)

MAYI: Bon. Nor ote da oraino ere hor? Aintzina.

ERRETORA: Lekukoak ditugu eskas... Hek ote diren?

MERA ETA GREFIERA: (*Sartuz*) Agur, jaun-andereak.

DENEK: Agur, jaunak.

MAYI: Tenore onean heldu zirezte. Zer duzue? Senditu?

MERA: Ez batere... Gauza batzuen zuekin aipatzeko, lagun jin nadien galdatu daud Jan Piarrek.

MAYI: Jar zaitezte, jar... Gu bezala eginen duzue.

MERA: Zeren ohoretan dituzue onkeria horiek mahainean?

MAYI: Aita eta amaren ohoretan. Horien berritz elgarretaratzea baita egun.

MERA: Ontsa, ontsa... preseski hortaz heldu ginen.

ERRETORA: Ez, bederen, ezkontza hunen berritz barreiatzerat?

MERA: Ez, ez... Bainan, zer egin ditaken ikusterat jaun errienta eta jaun grefieraren antolatzeko.

ERRETORA: Ez ahal dira antolatzen hola? Bakotxa berenarekin dira orai... Zer da hoberik?

MERA: Ez... Ez da hortan. Jaun errientak bazituen bere etxea ta bere ontasanak... Hek noren izanen dira orai?

ERRETORA: Zer proposatzen diozu?

MERA: Huna zer egin beharko den: Lehenik, tribunalez behar liteke desegin Adela eta jaun grefieraren ezkontza... Alabainan, errienta bizi denaz geroz, ez zitazken ezkont. Gero jaun errientak beharko du dibortzatu Adelarekin. Legez Adela baitu beti bere emaztea. Gero, Adelak beharko du ezkontu jaun grefierarekin. Eta azkenekotz, jaun errientak berritz ezkontu beharko du Frantzinarekin.



ERRETORA: (*Irriz*) Eta gero, Mayi ezkonduko da, Andre, Jan Piarren semearekin... Malobra gaitzen bezperan zira, Jaun Mera, ezkontza horiek guziak egin behar badituzu.

MERA: Nik, ezkontzetan, zu baino lan gehiago dut gero, Jaun Erretora. Zure ezkontza guziak egiten ditut nik ere, eta, gainerat, zure errefusak.

ERRETORA: Bai, eta desegiteko lana ere baduzu batzuetan, nik ez dudana.

MERA: Bai eta ere. Ahal hori ere badut, zuk ez duzuna.

ERRETORA: Alabainan, nik Jainkoak emanikako ahalak ditut bakarrik; eta zuk, gainerat dituzu, Jainkoari ebatsiak ere...

MERA: Dena den, zuen kasutik nola atera zaiteken, ene gogoaren berri emanen dautzuet.

ERRIENTA: Zuk aipatu urrats horietan ibili gabe, iduritzen zaut, aferak xuxen ditazkela.

MERA: Nolaz?

ERRIENTA: Jan Piarrek eta nik, utz ditzagun gure ontasunak, Mayi eta Andre, esposatzerat doazineri. Eta denak gauden hol'hola.

MAYI: Ez da batere gaizki pentsatua, Jan Piarrerri ontsa bazaio segurik.

GREFIERA: Enetako, ezin hobeki laiteke hola...

MERA: Bon... Askiz duzue, beraz, gisa hortarat jokatzea.

ERRETORA: (*Irriz*) Jaun Mera, hoinbertze lan egiteko buruan, hunarat jin eta ez zirea kexu hola kliantek karririk egitea?

MERA: Batere, halere izanen baitut merian ezkontza gehiago, zuk elizan baino.

ERRETORA: Ba, salbu kasu huntan. Maiz ikusten ez dena, gertatzen da hemen... Zenbaitetan, batzuek, meriaz ezkonduak direla-eta, elizarat ez dute agertu nahi... Egun berritz, elizaz ezkonduak direla-eta, meriarat ez dute joan nahi.

MERA: Hola eginen dugu kito.

MAYI: Hola denak «ados» garenaz geroz, edan dezagun.

MERA: Noren ohoretan edanen dugu?

GREFIERA: Nik segurik, errientaren ohoretan, pizturik itzuli baitzaiku.

MERA: Nik, meriaren izenean basoa altxatzen dut.

ERRETORA: Nik, elizaren izenean.

GREFIERA: (*Larriki*) Uste nuen errientak elizako ohoreen dretxorik ez zuela, Jaun Erretora.

ERRETORA: Adelaren senarrak ez, Frantzinarenak ba, Jaun Grefiera.

GREFIERA: Beharrik hola egin du. Griña eder bat kendu baitautzu.

ERRETORA: Eta zuri ez ote, Jaun Grefiera?

MERA: (*Edanez*) Ha? Zer gauza hau?

ERRETORA: Ba, xuritik, Jaun Mera... xuria beti onetik duzu.

MERA: Ohartua naiz gorri hutsa kaltekor dela. Haatik, xuri hutsak ere ez nau untsa uzten.

ERRETORA: Ni, berritz, izigarriki mesfida naiz kolore nahastekatuez.

MERA: Oraiko egunean, gauza gehienak nahastekatuak dira, Jaun Erretora, nahi edo ez.

GREFIERA: Hilak berak biziakin nahastekatuen dira eta...

MERA: Ba, eta ezkontzen ere.

ERRETORA: Hil huni, barkatuko diogu esposa dadien. Bainan, ez dadiela bertzerik pitz... Baitugu biziak gure harat-hunatekin aski, hilak gure artean beren sudurra sartu gabe...

GREFIERA: Ohore, beraz, hil espos-beharrari.

DENAK: Ba... Haren osagarriari.

OIHALA